

## C1eko PROGRAMAZIOA

### HELBURUAK , GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIOA

#### MAILAREN DESKIPZIOA

#### Erabiltzaile aditua.

Gai da malgutasunez eta zehaztasunez jokatzeko mota guztietako egoeretan. Ikasketak egin ditzake maila tertziarioan; edo, ikerketa proiektuetan, segurtasunez, parte hartu; baita bere inguru profesionalean eraginkortasunez komunikatu ere. Hizkuntza **oso erraz, malgutasunez, eraginkortasunez eta zehaztasunez** erabiltzen du, **ahalegin nabarmenik egin gabe**. Ahozko eta idatzizko mota askotako testu luzeak ulertzen eta ekoizten ditu, bakarrik zein lankidetzan, gai **orokorrei zein espezializatuei** buruzkoak, **egitura ugariak eta konplexuak** dituztenak eta **lexiko** zabala askotariko hizkuntza aldaeretan.

#### HELBURUAK

#### HELBURU OROKORRAK

C1 mailan, ikasleak hauxe **ikasten du**:

- Beste erabiltzaile batzuekin **jariotasunez eta era espontaneoan** komunikatzen, ia ahaleginik egin gabe, eta **hizkuntzaren hainbat aldaeraren jabe** dela erakutsiz.
- Hizkuntza formulak aukeratzen **izaera orokor, akademiko, profesional edo aisialdiko gai konplexu ugariren** artean; modu argian eta egokian adierazteko.
- Ahozko zein idatzizko testu luzeak ulertzen, norberaren espezializazio-arlokoak ez diren **gai abstraktuei eta konplexuei buruzkoak**.
- Egoera linguistikoan eduki soziokulturalari antzematen **eta lexiko-sorta zabaleko esapideak ulertzen, erregistro aldaketak bereiziz**.
- **Testuinguruaren, gramatikaren edo lexikoaren aztarnak** erabiltzen jarrerak, aldarteak eta asmoak ondorioztatzeke eta egoerak aurreikusteko.
- **Ikasle autonomoa** izaten, komunikazio eta ikasketa estrategiak garatuz eta erabiliz.
- Xede-hizkuntzaren edo bestelako hizkuntzen hitzunen arteko bitartekotza egiten, hainbat egoera eta esparrutan, **era malguan, zuzenean eta eraginkorrean emanez informazio eta iritzi esplizitu zein implizituak**, ahozko nahiz idatzizko testu askotarikoan egon daitezkeenak, eta estilo eta erregistro ezberdintasunak ahalik eta modurik zehatzenean islatuz.

#### HELBURU ZEHATZAK ETA JARDUERAK

#### Entzunaren ulermena

##### Helburua

Hiztunen asmoa eta zentzu orokorra, ideia nagusiak, informazio garrantzitsua, alderdi eta ñabardura esanguratsuak, eta iritzi eta jarrera esplizitu zein implizituak ulertzea; mota askotako ahozko testu luze, doi eta zehaztuetan; eta, mota askotako azentu, erregistro eta estiloetan; nahiz eta hitzunen oso azkar ahoskatu edo edukia ez egon modu esplizituan adierazita; betiere, zehaztasunak egiaztatu ahal izanez gero, bereziki ahoskera arrotza zaionean.

## Jarduerak

- Informazio espezifikoa ulertu adierazpen, mezu, iragarki eta jakirarazpen zehatzetan soinua kalitate txarrekoa izan arren edo distorsionatuta egonda ere.
- Informazio konplexua ulertu: baldintzak eta ohartarazpenak, produktuen erabilera argibideak eta zehaztapenak, zerbitzu eta prozedura ezagun zein ez hain ohikoak, eta, batez ere, norberaren lanbidearekin edo jarduera akademikoekin zerikusia duten kontuak.
- Erraz samar ulertu hitzaldi, solasaldi, berriketaldi eta mahai-inguru gehienak, izaera publiko, akademiko edo profesionaleko gai konplexuei buruzkoak, erabilitako argudioak zehatz ulertuz.
- Hirugarren pertsonen arteko elkarrizketa eta eztabaida luze samarren zehaztasunak ulertu, baita gai abstraktu, konplexu edo ezezagunei buruzkoak ere, eta, esaten denaren asmoa harrapatu.
- Solasaldi luze samarrak ulertu, nahiz eta ez egon ondo egituratuta eta ideien arteko lotura inplizitua baino ez izan.
- Mota askotako irrati eta telebista saio, antzezlan edo bestelako ikuskizun eta filmak ulertu, ahalegin handirik egin gabe, argota, lagunarteko hizkera edota esapide idiomatikoak agertu arren.

## Ahozko ekoizpena bakarrik zein lankidetzan

### Helburua

Bakarrik zein lankidetzan ekoiztea, hitz-jarioz, era naturalean eta ia ahaleginik egin gabe, mota askotako ahozko testu luzeak, argiak eta zehatzak, eduki eta egitura konplexua dutenak, zenbait erregistrotan, eta doinuera eta azentu egokiarekin. Mota askotako baliabide linguistiko eta estrategia diskurtsiboen jabe dela erakustea; modu nabarmenean esamolde egokien bila ibili gabe.

## Jarduerak

### Jendaurreko aurkezpenak

- Egin adierazpen publikoak jarioz, eta ia ahaleginik egin gabe; ñabardurak transmititzeko behar bezalako doinuera erabiliz.
- Gai konplexu bati buruzko aurkezpen luzeak eta ondo egituratuak egin, entzuleek bat-batean proposatutako alderdietan luzatuz, eta modu egokian ondorioztatuz.
- Bat-batean eta ahalegin nabarmenik egin gabe erantzun entzuleen galderari.

### Transakzioak

- Transakzio, kudeaketa eta operazio konplexuak burutu (gatazken konponbidea negoziatu, jarrerak ezarri, ideia zehatzak garatu eta ikuspuntuak aldeztu); hizkuntza limurtzailea erabiliz, eraginkortasunez negoziatuz, eta ustekabeko erantzunei eta zailtasunei aurre eginez.
- Gogobetetze edo ez betetze maila adierazi eta burututako transakzioei buruzko balioespenak egin.

### Elkarrizketak

- Elkarrizketa batean, oso-osorik bete elkarrizketatzailearen nahiz elkarrizketatuaren eginbeharra.
- Modu aktiboan parte hartu solasaldi informaletan, solaskide bakarrarekin edo gehiagorekin, gai abstraktu, konplexu, espezifiko, baita ezezagunei buruzkoetan ere; nahi izanez gero, hizkuntzaren alderdi emozionalak eta umoretsuak erabiliz.
- Modu aktiboan parte hartu gai abstraktu, konplexu, espezifiko, baita ezezagunak ere jorratzen dituzten solasaldi eta eztabaida formaletan (mahai-inguru, solasaldi, hizketaldi, bilera, mintegi). Argudioak eman, galderari eta iruzkinei erraz erantzun, jarioz, naturaltasunez eta modu egokian.

## Irakurriaren ulermena

### Helburua

Oso zehatz ulertzea egileen asmoa eta zentzu orokorra, informazio garrantzitsua, ideia nagusiak, iritziak eta jarrerak, esplizitu zein inplizituak; eduki eta egitura konplexua duten mota askotako testu idatzi luzeetan, baita norberaren espezialitatekoak ez direnean ere; estilo eta erregistro ezberdintasunei antzemanaz, betiere atal zailak berriro irakur badaitezke.

### Jarduerak

- Jarraibideak, oharrak, arautegiak, jakinarazpenak edo informazio tekniko luze eta konplexuak ulertu; norberaren espezialitatearekin zerikusia dutenak edo ez dutenak, betiere atalik zailenak berriro irakurtzeko aukera izanez gero.
- Berri, artikulua, txosten eta iragarkien edukia eta garrantzia azkar identifikatu.
- Ohar, mezu eta gutun pertsonaletan, ulertu, adibidez, ezohiko formatuak eragindako ñabardurak, zeharkako aipamenak edo inplikazioak, lagunarteko hizkeraren erabilera edo tonu umoretsuarena.
- Lanbidearekin edo erakundeekin zerikusia duten gutunetako informazioa ulertu, jarrerei, formaltasun mailai eta iritzi esplizitu zein inplizituei antzemanaz.
- Arlo profesional edo akademikoarekin zerikusia duten kontsulta testuak ulertu eta informazio zehatza atera, betiere, atalik zailenak berriro irakur badaitezke.
- Ulertu artikulua edo kazetaritzako bestelako testu luze samarretan, orokorrak izan nahiz espezializatuak, modu esplizituan zein inplizituan adierazitako ideiak eta jarrerak.
- Ulertu gai unibertsalei buruzko testu literario garaikide luzeak, lagunarteko adierazpenak eduki arren.

## Idatzizko ekoizpena bakarrik zein lankidetzan

### Helburua

Gai konplexuei buruzko eta zenbait arlotako testu luze eta zehatzak ekoiztea, bakarrik nahiz lankidetzan; ideia nagusiak nabarmenduz; neurri batean luzatuz; ikuspegiak aldeztuz eta konklusio egokiarekin bukatuz. Horretarako, egitura gramatikal eta ortografia, puntuazio eta testu aurkezpeneko arau konplexuak erabiliko dira; ironia, umorea eta emozioak adierazteko lexiko zabala menderatzen dela erakutsiz.

### Jarduerak

- Norberaren espezialitateko gaiei buruzko oharrak hartu hitzaldietan, ikastaroetan edo mintegietan, hain zehaztasun handiz hartu ere, ezen erabilgarriak gerta bailitezke beste batzuentzat ere.
- Beste pertsona batzuek erabil ditzaketen oharrak hartu inguru profesionalean izandako solasaldi formaletan, eztabaidetan edo debateetan.
- Korrespondentzia pertsonala idatzi eta foro birtualetan komunikatu. Modu argian eta zehatzean egin adierazpenak, hartzaillekiko harremanak era malguan eta eraginkorrean garatu, eta horretarako baliabide emozionalak eta umoretsuak zein zeharkakoak erabili.
- Idatzi, beharrezko zuzentasunaz eta formaltasunaz, erakunde publiko edo pribatuei zuzendutako korrespondentzia formala (erreklamazio edo eskaera konplexu bat egin, edota zerbaiten aldeko edo aurkako iritziak eman, informazio zehatzak edo argudio egokiak erantsiz).
- Modu argian eta ondo egituratuan idatzi gai konplexuei buruzko txostenak, memoriak, artikulua, saiakerak edo bestelako testuak esparru publiko, akademiko edo profesionalean.

## Bitartekotza

### Helburua

Xede-hizkuntzaren edo bestelako hizkuntzen hiztunen arteko bitartekotza eraginkortasunez egitea, ohiko egoeretan zein egoera espezifikoagoetan eta konplexuagoetan eta mota guztietako esparruetan (pertsonala, publikoa, akademikoa eta profesionala).

Malgutasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez helaraztea informazioak eta iritziak, esplizitu nahiz inplizituak, ahozko zein idatzizko mota askotako testu luze eta zehatzetan daudenak.

Ahal den modurik zehatzenean islatzea estilo eta erregistro ezberdintasunak; horretarako, noizbehinka izan ditzaketen zailtasunak ezkutatuko dituzten baliabideak eta estrategiak erabiliz.

### Ahozko bitartekotza jarduerak

- Besteei ahoz helarazi, beharrezko zehaztasunez, zailtasun sintaktiko eta semantikoa edo ezaugarri bereizgarriak (erregionalismoak, hizkera literarioa, lexiko espezializatua, eta abar) dituzten ahozko zein idatzizko testuen puntu nagusiak, zehaztasun esanguratsuak, eta iritziak eta jarrerak, hala esplizituak nola inplizituak.
- Hainbat iturritatik jasotako informazioak eta ideiak ahoz parafraseatu eta laburtu, argudioak eta gertakariak beharrezko zehaztasunez eta modu koherentean berreraikiz.
- Elkarren segidan interpretatu askotariko gaiak zenbait esparrutan.
- Xede-hizkuntzaren edo bestelako hizkuntzen hiztunen arteko bitartekotza egin eraginkortasunez eta erabateko naturaltasunez, edozein egoeratan, baita korapilatsuetan eta gatazkatsuetan ere.

### Idatzizko bitartekotza jarduerak

- Ohar idatziak eta zehatzak hartu beste batzuentzat doitasunez eta modu egituratuan hitzaldi, bilera, debate edo mintegi batean, gai konplexuei buruz, norberaren espezializazio esparrukoak edo bestelakoak.
- Besteei eman idatziz, beharrezko zehaztasunez, zailtasun estruktural edo kontzeptual handia edo ezaugarri bereizgarriak (erregionalismoak, hizkera literarioa, lexiko espezializatua, eta abar) dituzten ahozko zein idatzizko testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa, gai nagusiak, zehaztasun esanguratsuak eta iritziak eta jarrerak, hala esplizituak nola inplizituak.
- Hainbat iturritatik jasotako informazioak eta ideiak idatziz parafraseatu eta laburtu, zuzentasunez eta eraginkortasunez, modu koherentean eta esanguratsuak ez diren zehaztasunak aipatu gabe, informazio zehatza eta argudio konplexuak modu fidagarrian emanaz.
- Itzuli, laguntza espezifikoa erabiliz, zailtasun estruktural eta kontzeptualak dituzten testuen pasarteak, baita zailtasun teknikoak dituztenak ere; gai orokorrei buruzkoak, zein norberaren intereseko gai espezifikoei buruzkoak; norberaren espezializazio esparrukoak direnak eta ez direnak; modu fidagarrian emanaz iturriaren edukia eta, ahal den neurrian, errespetatuz haren ezaugarri bereizgarriak (estilo, lexiko edo formatoari dagozkionak).
- Azaldu edota helarazi zehaztasunez infografiaren edukia.

## GAITASUNAK ETA EDUKIAK

### 1. GAITASUN ETA EDUKI FUNTZIONALAK

Hurrengo funtzio komunikatiboak edo hizketako egintzak ulertu berariazko testuinguru komunikatiboaren arabera, hizketako egintzok zuzenak izan nahiz zeharkakoak eta hainbat erregistro arlotan (familia, hizkera informala, neutroa, formala):

#### Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agurtu et agurrari erantzun.
- Norbaitengana zuzendu.
- Norbait aurkeztu modu formalean nahiz informalean.
- Aurkezpenari erantzun.
- Aurkezpenaren beharraz galdetu.
- Aurkez zaitzatela eskatu.
- Norbaiti ongietorria egin edo jasotako ongietorriari erantzun.
- Barkamena eskatu eta barkamen eskaerari erantzun.
- Esker ona adierazi eta jasotakoari erantzun.
- Topa egiteko proposamena egin.
- Urtebetetzean eta bestelako jai eta ospakizunetan zoriondu.
- Desio onak, arrakasta edo zortea opa.
- Zorion-agurrei nahiz desio onei erantzun.
- Elkertasuna adierazi galera, istripu edo une zailetan.
- Adio esan.

#### Komunikazioaren kontrola

- Kontaketari jakin-minez jarraitzen zaiola adierazi.
- Adierazi ez dela ulertzen eta eskatu errepikatzeko, letreiatzeko edo argitzeko.
- Ulertu ez duen norbaiti zerbait azaldu edo itzuli.
- Zuzen ulertu duen jakiteko, baieztapena eskatu.
- Zuzendu norbere burua.
- Hitzunak berak esan nahi duenaren bila dabilen bitarteko hutsunea bete, etenak eginez, keinuz, luzapenez edo bestelako itxarote adierazpenez.
- Komunikazio arazo baten aurrean nabaritu ez den moduan parafraseatu.
- Ahaztu den edo ezagutzen ez den hitzen bat ordezkatu beste generiko batez.

#### Informazio orokorra

- Identifikatu pertsonak eta objektuak.
- Denborari, helburuari, arrazoiari eta zergatiari buruzko informazioa eskatu. Aukerak proposatu.
- Jakin-mina adierazi.
- Azalpena eskatu, zuzenean edo adeitasunez.
- Tokiari, denborari, moduari, helburuari, arrazoiari eta zergatiari buruz informazioa eman.
- Lehenago emandako informazioa zuzendu: galdera bati, baiezkoko edo ezezko enuntziatu bati erantzunez.
- Lehenago eman den enuntziatua desegokia dela adierazi.
- Eskatu baieztapena zuzenean edo itzulinguruka.
- Zalantzan jarri informazioa.
- Lehenago emandako informazioa baieztatu.

- Deskribatu pertsonak, objektuak, lekuak, egoerak, aldarteak eta sentimenduak.
- Kontatu gertakariak.

### **Ezagupen, iritzi eta balioespenak**

- Eskatu eta eman iritzia.
- Balioespena eskatu eta balioetsi.
- Onespina eta gaitzespena adierazi.
- Zerbaiten alde edo aurka azaldu.
- Norbaiti zerbaitekin ados dagoen galdetu. Akordiorako gonbidapena egin.
- Adierazi adostasun eta desadostasun erabatekoak zein adostasun eta desadostasun partzialak.
- Eszeptizismoa erakutsi.
- Kontraargudio bat aurkeztu.
- Ziurtasuna edo ziurtasun falta adierazi, edota zerbait begibistakoa dela edo ez dela.
- Hipotesiak egitera gonbidatu.
- Posibilitatea, eginbeharra eta premia edota haien gabezia adierazi.
- Zerbaiten ezagueraz galdetu.
- Zerbaiten ezagutza edota ezjakintasuna adierazi.
- Zerbait egiteko trebetasuna adierazi eta horri buruz galdetu.
- Zerbait gogoratzen den edo ahaztu den galdetu.
- Zer gogoratzen den edo zer ez adierazi.

### **Nahiak, osasun egoerak, sentsazioak eta sentimenduak**

- Gustuak eta jakin-minak adierazi eta haiei buruz galdetu.
- Higuina adierazi.
- Zenbait aukeren aurrean lehentasunak adierazi eta haiei buruz galdetu.
- Zenbait aukeren aurrean axolagabetasuna edo lehentasunik eza adierazi.
- Desio, egitasmo eta asmoak adierazi eta haiei buruz galdetu.
- Zapuztutako egitasmo eta asmoak adierazi.
- Gogo-aldarteaz galdetu.
- Poztasuna, gogobetetasuna, plazera eta dibertimendua adierazi.
- Tristura, atsekabea, asperdura, asetzea, haserrea eta sumindura adierazi.
- Beldurra, estutasuna, kezka, urduritasuna adierazi.
- Enpatia, lasaitua eta itxaropena adierazi.
- Etsipena, damua eta lotsa adierazi.
- Ustekabea, harridura, miresmena eta harrotasuna adierazi.
- Begikotasuna adierazi.
- Sentsazio fisikoak adierazi.

### **Eskaerak, argibideak eta iradokizunak**

- Aginduak eta argibideak eman modu zuzenean, lausoan nahiz ezkutuan.
- Gauzak, mesedeak edo laguntza eskatu modu zuzenean, lausoan nahiz ezkutuan.
- Erregutu.
- Lehenago emandako, edo eman delakoan gauden, agindua errepikatu.
- Aginduari, eskaerari edo erreguari erantzun erreparoarekin edo erreparorik gabe.
- Konpromisoa saihestu, begirunez uko eginez, edo, ezezko biribilez.
- Baimena eskatu eta eman, oztopoak jarriz edo jarri gabe. Baimena ukatu.
- Debekua galarazi eta arbuiatu.

- Proposatu eta iradoki.
- Eskaini eta gonbidatu.
- Lehenago egindako proposamenari baieztapena eskatu.
- Proposamena, eskaintza edo gonbidapena onartu erreparoarekin edo erreparorik gabe; edota haiei uko egin.
- Aholkua eman, ohartarazi, mehatxatu eta gaitzetsi.
- Hitzeman eta engaiatu.
- Norbere burua eskaini zerbait egiteko.
- Lasaitu, kontsolatu eta adore eman.

### Diskurtsoaren antolamendua

- Agurtu eta agurrari erantzun.
- Pertsona bati buruz galdetu eta erantzun.
- Gauzen egoera orokorraz galdetu, eta, dena ondo doala edo zerbait gaizki doala erantzun.
- Solasaldi bat hasi.
- Kontaketa bat hasteko eskatu eta erreazionatu, hasteko eskatuz edo hastea galaraziz.
- Kontaketaren gaia txertatu eta erreazionatu.
- Kontaketari arretaz jarraitzen zaiola erakutsi.
- Solaskideen arreta kontrolatu.
- Gertakari bat txertatu.
- Informazioa antolatu. Elementuak lotu. Esandakoa birformulatu. Elementu bat nabarmendu.
- Beste norbaiten hitzak txertatu. Aipatu.
- Digresio bat ireki eta itxi.
- Gai bat edo gaiaren alderdi bat arbuia.
- Beste norbaiten hizketaldia moztu, berriro hitz egiten has daitekeela adierazi, isiltzeko eskatu.
- Hitza eman.
- Hitz egiten jarraitu nahi dela adierazi. Kontaketa amaitu, gai berria txertatu.
- Amaiera proposatu. Amaiera arbuia gai berria proposatuz.

## 2. GAITASUN ETA EDUKI SOZIOKULTURAL ETA SOZIOLINGUISTIKOAK

Beharrezko ezagueren, trebetasunen eta jarrerren jakite maila handia, harreman sozialen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak, esamoldeak eta herri jakinduriaren adierazpenak, erregistroak, dialektoak eta azentuak barne. Horrek aukera emango dio hizkuntzaren erabilera sozialari modu zabalean heltzeko ulermenean, bakarkako ekoizpenean eta lankidetzakoan, ahozko eta idatzizko testuetan.

### Alderdi soziokulturalak, gaiak eta atazak

- Egunerokoak: ordutegiak, janari-edariak, portaerak, jaiak, aisialdiko jarduerak. Bizitza-baldintzak: bizi-maila, etxebizitza, gizarte-laguntza, hezkuntza.
- Harreman pertsonalak: egitura soziala, sexuen artekoa, adin bereko eta ezberdinekoen artekoa, familian, lanean, irakasle eta ikasleekin, agintariekin, zerbitzuak eskaintzen edo ematen dituztenekin.
- Balioak, sinesmenak eta jarrerak: gizarte-mailak, taldeak, dirua, tradizioa, historia, gutxiengoak, erlijioa, politika, umorea.
- Gorputzaren hizkera.
- Gizarteko arauak: puntualtasuna, opariak, gonbidapenak, ospakizunak, adeitasuna.
- Errituetako portaera: zeremoniak, gertaerak, antzezpenak, jaiak.

## Trebetasun soziolinguistikoaren garapena

Hizkuntzaren erabilerak berekin dakar hizkuntza horren dimentsio sozialaren ezagutza, ulermena eta praktikan jartzea. Eta horretarako, trebetasun eta baliabide linguistiko egokiak bizkortu behar dira honako hauei dagokienetan:

### Harreman sozialak

- Harreman sozialetan: ezagutu, erabili eta jakin erantzuten erraz eta malgutasunez agurrei eta adeitasunezko esapideei, agurtzeko, ezagun edo ezezagun batengana zuzentzeko, bere burua aurkezteko, beste bat aurkezteko, aurkeztua izandakoan erantzuteko, informazio edo kontaketa baten aurrean erreakzionatzeko, informazio edo mesede bat eskatzeko, eskertzeko, barkamena eskatzeko, baimena eskatzeko edo emateko, beste batzueganako interesa erakusteko, zoriontzeko, goraiatzeko, eskaintzeko, onartzeko, desenkusatzeko, gonbidatzeko, topa egiteko, ongietorria egiteko, zenbait gertakaritan sentimenak adierazteko eta egoera horietan erreakzionatzeko; erabilitako tratamenduari egokitu eta ulermena kontrolatu.
- Gizarteko formula egokiak erabili testuetan: mezu eta gutun pertsonaletan (mezularitza aplikazioak, posta elektronikoak, posta); testu sozial labur tipifikatuetan ( gonbidapenak, eskerrak ematekoak, desenkusak eskatzekoak, zerbitzuak eskatzekoak); gutun formaletan; galdetegietan; txostenetan; oharretan; laneko, ikasketetako edo aisialdiko mezuetan; eta, foro birtualetako parte hartzeetan.
- Kasuan kasuko formaltasun- edo informaltasun-mailari dagozkion tratamendu-formak eta adeitasun-adierazpenak ezagutu eta erabili.
- Tratamendu-aldaketen esanahia ezagutu (konfiantza, errespetua, hurbiltzea, urruntzea).
- Interakzioan, hizkuntzaren eta kulturaren berezko baliabide eta interes-seinaleekin erreakzionatu eta kooperatu.
- Eguneroko egoeretan esaldi eta formula topikoak egoki erabili.
- Pertsona ezezagunekin topo egitean kultura horri dagozkion hizkera eta jarrera hartu (posizioa, begiradak, distantziak, eguraldiari buruzko galderak, isiluneak).
- Norberaren kulturakoak ez diren keinuen esanahia ezagutu eta erabili.
- kontaktu fisikoekin, ikuste-kontaktuekin, arreta-mugimenduekin eta kooperazio soinu edo adierazpen txikiekin (eskua eman, musuak, distantzia, begietara begiratu edo ez begiratu) zerikusia duten portaerak ezagutu eta haietara egokitu.

### Hizkuntza estandarra eta aldaerak

- Erraz erabili erregistro zaindua era formalean zein informalean.
- Egoera formalak eta informalak bereizi (errituak, egoera ofizialak, formalak, informalak, intimoak) eta jokatzeko modua kultura horretan ohikoa den modura egokitu.
- Ahozko eta idatzizko hizkuntza bereizi.
- Lagunarteko hainbat esamolde ezagutu, eta une egokietan erabili (ahoz, idatziz, SMSak, txatak).
- Argota edo lagunarteko hizkera darabilten ikus-entzunezkoen edukia ulertu.
- Zein dialekto eredu edo aldaera den jakin.

### Kultura erreferenteak

Honako hauek ezagutu:

- zenbait esamolderen bi zentzu edo esanahi gordina.
- denborari buruzko esamolde batzuen esanahi doi-doia edo erlatiboa xede-hinkuntzan.
- xede-hizkuntzaren kulturaren iraingarritzat jo daitezkeen edo tabuak diren alderdi eta hizkuntza-formak.
- erreakzio barregarri edo mespretxuzkoak eragiten dituzten interferentzien zentzua.
- esamolde eta esaera zaharren esanahia, eta haiek erabili.
- pertsonaiei eta gertakariei buruzko esamoldeen esanahia.



### 3. KULTURARTEKO GAITASUN ETA EDUKIAK

Bitartekotza erraz eta modu eraginkorrean egiteko aukera emango duten kulturarteko ezagutzen, trebetasunen eta jarrerren jakite maila handia:

- Kontzientzia soziolinguistikoa eta alteritatearena.
- Ezaguera kultural espezifikoak.
- Behaketa eta entzutea.
- Ebaluazioa, interpretazioa eta harremanetan jartzea.
- Egokitzapen, inpartzialtasun, errespetu, jakin-min, irekitasun eta tolerantzia.

### 4. GAITASUN ETA EDUKI ESTRATEGIKOAK

#### Ahozko testuen ulermena

Kasuan kasuko estrategia egokien aukeraketa eta aplikazio eraginkorra egin honako hauek ulertzeko: asmoa, zentzu orokorra, ideia nagusiak, informazio garrantzitsua, alderdi eta zehaztasun esanguratsuak eta hitzunen iritzi eta jarrera esplizitu zein inplizituak.

- Ahaleginik egin gabe, ezagutu xede komunikatiboak eta antzeman ideia nagusiei eta bigarren mailakoei, gai aldaketei, iritzi ezberdinei eta ahozko testuetako zehaztasunei, nahiz eta konplexuak izan.
- Esanahi esplizitu eta inplizituak identifikatu, nahiz eta soinuaren kalitatea on-ona ez izan.
- Egoera eta testuingurua aintzat hartu mezua ulertzeko.
- Orokorrean ulertzeko gaitasuna garatu, diskurtsoaren hitz guztiak ezagutu gabe ere.
- Estrategia pertsonal egokiak berez edo nahita aplikatu, modu eraginkorrean ulertzeko.

#### Ahozko ekoizpena bakarrik eta lankidetzan

Konpentsazio-estrategien eta diskurtsiboen jakite maila handia. Horrek aukera emango du esan nahi dena egoera komunikatibo bakoitzari eraginkortasunez egokitzeko eta noizbehinkako zailtasunak sumaezinak bihurtuko ditu.

- Solasaldi batean nola eta noiz hasi edo parte hartu jakin, norbere ideiak eta iritziak modu argian eta zehatzean adieraziz, gaiaren garapenean modu eraginkorrean ahaleginduz eta interakzioa behar bezalako konklusiora eramaten lagunduz.
- Xede komunikatiboa modu eraginkor, argi eta zehatzean burutu edozein egoera sozial eta profesionaletan, bere ustez garrantzitsuena dena azpimarratuz.
- Antzeman solaskidearekiko formaltasun (publikoa edo pertsonala) eta hurbiltasun mailari (tratamendua, keinuak, jarrerak), baita lagunarteko osagai ere. Eta haiek erabili.
- Erregistroa, tratamendua, adierazpenak, jarrerak, distantzia, mugimenduak, ahotsaren tonua egokitu xede komunikatiboari, testu/diskurtso motari, solaskideei, komunikazio kanalarari eta tokiari.
- Interakzioaren xede komunikatibo (ironia, umorea, esanahi aldaketa) inplizituak ulertu testuingurua eta doinuera aintzat hartuta.
- Iritzien eta baieztapenen ziurtasun-gradua eta ezaguera zehatzu, baieztapenok indartuz edo leunduz.
- Ahozko zenbait adeitasun baliabide erabili eta onartu adostasun, desadostasun, oharpen, aholku, baieztapen eta kritikak modu zehatzean egiteko.
- Eskatu eta eskaini argitzea, errepikatzea eta birformulatzea komunikazio hutsegiteak daudenean.

### Testu idatzien ulermena

Estrategia egokien aukeraketa eta aplikazio eraginkorra eginaldi bakoitzean lortu nahi edo behar dena ulertzeko; eta, horretarako, honako gako hauek erabili: testuingurukoak, diskurtsiboak, gramatikalak, lexikoak, eta ortotipografikoak, egilearen jarrera, buruko aurrejoera eta asmoak ondorioztatzeko.

- Estrategiak garatu testu luze eta zorrotzak ulertzeko, esate baterako, prentsa artikulua, saiakerak, txostenak, jarraibide-eskuliburuak, iruzkinak, gutunak eta testu literarioak noizbehinka hiztegia erabiliz. Gai izan esanahi inplizitua antzemateko, baita edukia laburtzeko ere.
- Aldez aurreko ezagutzak eta esperientzia pertsonala baliatu testua ulertzeko.
- Hipotesiak egin irakurriko denaren edukiaz eta antolaketaz, forma eta testuingurua aintzat hartuta.
- Hitz gakoak identifikatu testuan eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi.
- Elementu bakanen ulermena abiapuntu hartuta, hipotesiak formulatu, induzitu eta deduzitu, testuaren esanahi orokorra eraikitzea lortzeko.
- Ezagutza linguistikoa baliatu arauen (hitzen eraketa, hitz-eratorpena, eta abar) eta esanahien iragarpenak egiteko.
- Erraz aukeratu norbere informaziorako beharrezkoak diren mezu eta testuak.
- Orokorrean ulertzeko gaitasuna garatu, testuko hitz guztiak ezagutu gabe ere.
- Ulermen hutsegiteak zuzendu testua osorik edo haren pasarteak berrirakurrituz.

### Idatzizko ekoizpena bakarrik eta lankidetzan

Kasu bakoitzean estrategia egokienak aplikatu, era malgu eta eraginkorrean, askotariko testu idatzi konplexuak idazteko, bere testuingurura atxikiak, mezua eta bitartekoak hartzailearengan lortu nahi den eraginaren arabera planifikatuz.

- Ongi egituraturako testuak idazteko estrategiak garatu, askotariko gaiei buruzkoak, hainbat iturritako informazioa baliatuz, sentimen, esperientzia eta gertakariei buruzkoak barne; iritzi pertsonalak adieraziz eta hizkera estilo egokia erabiliz.
- Testua egituratu elementu linguistiko eta paralinguistikoak erabiliz.
- Aurreratu testuaren antolaketa bere atal nagusietan: sarrera, atal nagusia eta bukaera.
- Aurreratu testuan garatuko diren ideiak, eta, baliabide linguistiko egokien bidez, haiek adierazteko modu eraginkorra.
- Testu idatzi baten bitartekotza egiteko estrategia egokiak aukeratu eta aplikatu: azaldu edo laburtu ideiak testu luze eta konplexuetan, modu argian, naturalean eta egituratuan.

## 5. GAITASUN DISKURTSIBOA

Testuinguru-eredu eta testu-patroi konplexuak ezagutu, ulertu eta sortu, hala ahozko hizkuntzan (bakarrizketa eta elkarrizketa) nola hizkuntza idatzian, zenbait hizkuntza-aldaeratan eta testuinguru espezifikoren arabera, baita espezializatua ere.

### Koherentzia eta antolaketa

Egokitu ahozko eta idatzizko testua testuinguru komunikatiboari (testu mota eta formatua; hizkuntza-aldaera; erregistroa; gaia; ikuspegia eta edukia: eduki esanguratsua aukeratu, egitura sintaktikoak aukeratu, lexikoa aukeratu, espazio eta denbora testuingurua).

- Atxiki ideien koherentzia xede komunikatiboari eta ideiena beren artean, elementu nahasgarri eta hutsalik gabe; nahiz eta testuak luzeak izan edo norbere espezialitatekoak ez diren gaiei buruzkoak.

- Ideiak era koherentean antolatu, jauzirik eta justifikatu gabeko atzera-bueltarik gabe.
- Argi utzi eta antzeman denbora, espazio eta logikaren (gaia-iruzkina, zergatia-ondorioa, baldintza-betetzea, tesia-argudiaketa, ondorioa) haria.
- Aurre egin behar dien edo sortu behar dituen testuen ezaugarriei, antolaketari eta formatuari antzeman eta egokitu (gutunak, mezuak, interakzioak, artikulua, saiakerak, txostenak, liburuxkak, ohartarazpenak, aurkezpenak, eta abar).
- Testuaren baliabide grafikoei erreparatu haren antolaketa ulertzeko edo eratzeko, baita tituluak, atalak, zerrendatzeak, enfasia, aipamenak eta abar ezagutzeko eta seinaltzeko ere.
- Xede komunikatiboa betetzeko informazio nahikoa eta esanguratsua eskaini. Iritzia edo adibidea baldin bada, argi utzi hala dela.

### **Kohesioa eta jarioa**

Ahozko eta idatzizko testuaren barne antolaketa. Unitate testualaren hasiera, garapena eta konklusioa: hasierako mekanismoak (hasiera eman eta abar); gaiaren sarrera; tematizazioa; diskurtsoaren garapena; gaiaren garapena (gaia mantentzea); erreferentziakidetasuna; elipsia; errepikapena; birformulazioa; enfasia. Gaia zabaltzea: exenplifikazioa; indartzea; kontrastea; azpigaiak sartzea. Gai aldaketa: digresioa; lehengo gaia berreskuratzea; konklusioa; laburpena/laburbilketa; testua bukatzera doan jakinarazpena eta testuaren itxiera.

- Jasotzen edo sortzen diren testuetan, erraz antzeman eta erabili diskurtsoaren une ezberdinek erakusten dituzten hainbat testu antolatzaile eta intonazioa.
- Mezua testuinguruan kokatu denbora eta espazio adierazpen egokiak erabiliz.
- Berririo heldu informazioari; nahita egiten ez diren errepikapenak saihestu ordezkapen baliabide gramatikal eta lexikoak erabiliz, eduki koherentea duen diskurtsoa sortzeko, eta, formari dagokionez, malgua eta naturala.
- Lokailuen eta puntuazioaren garrantzia balioetsi eta eraginkortasunez erabili diskurtso malgu, zehatz, argi eta koherentea sortzeko.
- Testu osoan zehar aditzaren denbora eta aspektu koherenteari atxiki.
- Interakzioan eta parte-hartzeetan, nahiz eta luzeak izan, naturaltasunez moldatu; zehaztasuna, jariora eta erraztasuna erakutsiz.

### **Testuak**

Testu terminoa, erabiltzaileek jasotzen eta bakarrik edo lankidetzan sortzen duten ahozko edo idatzizko edozein hizkuntza pasarteri buruz hitz egiteko erabiltzen da.

Maila honetako testuak ataza komunikatiboek zehazten dituzte, eta, luzeak eta konplexuak izan daitezke, baita erabiltzailearen espezialitateari buruzkoak ez direnak ere. Argota, adierazpen idiomatikoak eta lagunartekoak izan ditzakete. Garatzen dituzten ideiak modu esplizitu edo inplizituan ager daitezke eta alderdi ironikoak edota umorezkoak izan ditzakete.

### **Nolako testuak irakurtzen dira?**

Testuak helburu zehatzei jarraituz irakurtzen dira ataza zehatzen testuinguruan. Maila honetan testuak luzeak eta konplexuak dira, mota askotako gai konkretu eta abstraktuei buruzkoak.

- Inprimatutako prentsa zein digitala: berriak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak, saiakerak, eta abar.
- Nolabaiteko ondorio soziokulturalak izan ditzaketen publizitate-iragarkiak.
- Txosten luze eta konplexuak.
- Gutun, mezu eta SMS luze eta konplexuak; pertsonal, komertzial nahiz profesionalak.

- Web-orri orokorrak nahiz espezializatuak.
- Testuliburuak.
- Eleberrak, ipuinak, biografiak, komikiak, eta bestelako narrazioak.
- Nolabaiteko konplexutasuna duten antzezlanak eta poemak.
- Abestien hitzak.
- Liburu, film edo antzezlanen erreseinak.
- Hiztegi elebidun eta elebakarrak.
- Agendak, gidaliburuak, ordutegiak eta katalogoak.
- Liburuxka turistikoak edo komertzialak.
- Izaera publikoko edo profesionaleko jarraibideak: arautegiak, eskuliburuak, errezetak, brikolaje-liburuxkak, eta abar.
- Administrazio-testu orokorrak.

### **Nolako testuak entzuten dira?**

Testuak helburu zehatzei jarraituz entzuten dira ataza zehatzen testuinguruan. Maila honetan testuak luzeak eta konplexuak izan daitezke, mota askotako gai konkretu eta abstraktuei buruzkoak. Ahozko testuak ondo egituratu gabe egon daitezke eta giro zaratatsuan gertatu. Grabatutako testuak kalitate eskas samarrekoak izan daitezke.

- Hitzaldiak, konferentziak eta aurkezpen luzeak eta konplexuak mota askotako gai konkretu eta abstraktuei buruzkoak.
- Zenbait hitzunen arteko solasaldi luzeak eta konplexuak, formalak zein informalak.
- Jarraibide luze eta konplexuak, publikoak zein profesionalak.
- Mahai-inguruak eta debateak.
- Irratiz, telebistaz edo Internetz emandako mota askotako saioak.
- Irrati, telebista edo Interneteko publizitatea.
- Mota askotako filmak eta dokumentalak.
- Ikuskizunak: antzezlanak, denbora-pasak, abestiak, eta abar.
- Txistek eta pasadizoak.
- Ahots-postontzi batean, mezularitza-aplikazio batez grabatutako jarraibide eta mezuak.
- Telefono bidezko elkarrizketak eta bideokonferentziak, formalak zein informalak.

### **Nolako testuak ekoizten dira?**

Testuak helburu zehatzei jarraituz ekoizten dira ataza zehatzen testuinguruan. Maila honetan testuak luzeak eta konplexuak izan daitezke, mota askotako gai konkretu eta abstraktuei buruzkoak.

### **Ahozko testuak**

#### **Interakzioa**

- Aurrez aurreko elkarrizketa formalak zein informalak, baita gai abstraktu, konplexu eta ezezagunei buruzkoak ere.
- Interes orokorreko negoziatioak.
- Telefono bidezko solasaldi formalak zein informalak.
- Aplikazioren baten bitartez sortutako audio-mezuak.
- Ikuspuntu-trukea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Aurrez aurreko edo telefono bidezko transakzioak, baita konplexuak ere.
- Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea.

- Izaera publiko edo profesionaleko jarraibideak.
- Ziurtagiriak (bizileku-ziurtagiria, osasun-ziurtagiria, eta abar) eskuratzea.
- Arlo pertsonal nahiz akademiko edo profesionaleko gai konplexu samarrei buruzko debate eta eztabaida publikoak.
- Laneko, ikasketetako, eta abarreko elkarriketak elkarriketatzaile zein elkarriketatuaren eginkizunean.
- Parte-hartzeak norberaren espezialitatearekin zerikusia duten gaiei buruzko bilera formaletan.
- Luze samarrak diren aurkezpen publikoak gai konplexuei buruzkoak (egitasmoak, txostenak, esperientziak, eta abar)

### Ekoizpena

- Gaiei buruzko azalpenak, baita abstraktuak, konplexuak eta ezezagunak badira ere.
- Ohartarazpenak, jarraibideak, arauak, aholkuak eta debekuak.
- Gertakari, esperientzia, pasadizo eta egitasmoen kontaketa zehatza.
- Istorioen narrazioak.
- Ideien argudiatzea, justifikazioa eta azalpena.
- Arazo baten azalpena.
- Ekitaldi, liburu, film edo pertsonen aurkezpena.
- Liburu, film, telesaio, eta abarren balorazioa.

### Testu idatziak

#### Interakzioa

- Gutunak eta SMS pribatuak, komertzialak zein profesionalak.
- Sare sozialak eta mezularitza aplikazioak
- Foro birtualetan parte-hartzea. Txatak.
- Jarraibide publiko edo profesionalak.
- Kontratu errazak (lanekoa, alokairua).

### Ekoizpena

- Testu informatzaileak.
- Argudio-testuak.
- Iritzi-artikuluak eta saiakerak.
- Pertsona, objektu, jarduera, prozesu, zerbitzu, toki, egitasmo eta proiektuen deskribapenak.
- Esperientziak eta benetako zein alegiazko gertakariak kontatzea.
- Txosten eta memoria publiko zein profesionalak.
- Egunkariak.
- Biografiak.
- Lan-eskabideak.
- Laburpenak.
- Film, eleberri, antzezlan, ikuskizun eta abarren erreseinak.
- Klaseko lanak (gelan edo gelatik kanpo egindako idazlanak).

### Zein gai jorratzen dira?

- Identitatea, historia eta garapen pertsonala.
- Etxebizitza eta inguru fisikoa.
- Eguneroko jarduerak.
- Kultura eta gizartea.
- Giza harremanak eta harreman sozialak.

- Aisialdia eta ikuskizunak.
- Gorputz-hezkuntza eta kirola.
- Garraioa eta mugikortasuna
- Geografia eta bidaiak.
- Komunikabideak.
- Gaurkotasun politikoa, soziala eta gizatiarra.
- Diseinua, joerak eta modak.
- Kulturartekotasuna.
- Globalizazioa.
- Pribatutasuna eta segurtasuna.
- Osasuna eta gorputzaren zainketak.
- Elikadura.
- Hezkuntza.
- Lana eta garapen profesionala.
- Ekonomia eta enpresa.
- Kontsumoa, erosketak eta jarduera komertzialak.
- Ondareak eta zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Literatura.
- Historia.
- Musika.
- Artea.
- Sinesmenak, ohiturak, balioak eta errituak.
- Giza portaera eta psikologia.
- Natura, klima, baldintza atmosferikoak eta ingurumena.
- Zientzia, ikerketa eta teknologia.

## 6. GAITASUN ETA EDUKI LINGUISTIKOAK

### GAITASUN ETA EDUKI SINTAKTIKOAK

#### ❖ Izen sintagma

- Izena
  - Bakunak eta konplexuak
  - Arruntak eta bereziak
  - Bizidunak eta bizigabeak
  - Zenbakarriak eta zenbakaitzak
- Izenordainak
  - Pertsona izenordain indartuak: Neu, heu, geu, zeu, zeuek.
  - Izenordain zehaztugabeak: Galdetzailleetatik eratorriak: inor, norbait, nor edo nor, edonor, nornahi, baten bat.
  - Bihurkariak: NOREN + BURUA (*Joneren nebak bere burua hil du*).
  - Elkarkariak: (*Josuk eta Mirenek elkar maite dute; bata bestearen atzetik etorri dira*).
- Deklinabidea.
  - Deklinabide kasuak:

- Nor (Absolutiboa)
  - Nork (Ergatiboa)
  - Nori (Datiboa)
  - Non (Inesiboa)
  - Nondik (Ablatiboa)
  - Nora (Adlatiboa)
  - Nongo (Leku-denbora genitiboa)
  - Norako (Adlatibo destinatiboa)
  - Norantz (Hurbiltze adlatiboa)
  - Noraino (Muga adlatiboa)
  - Norengan (Bizidunen inesiboa)
  - Norengandik (Bizidunen ablatiboa)
  - Norengana (Bizidunen adlatiboa)
  - Norengantz (Bizidunen hurbiltze adlatiboa)
  - Norenganaino (Bizidunen muga adlatiboa)
  - Noren (Genitiboa)
  - Norentzat (Destinatiboa)
  - Norekin (Soziatiboa)
  - Norengatik (Motibatiboa)
  - Norentzako (Destinatibo birdeklinatua)
  - Norekiko (Soziatibo birdeklinatua)
  - Norenganako (Bizidunen adlatibo birdeklinatua)
  - Norainoko (Muga adlatibo birdeklinatua)
  - Zerik (Partitiboa)
  - Zerez (Instrumentala)
  - Zertzat (Prolatiboa)
- Mugagabearen erabilera.
  - Bereziki nahasketak sortzen dituzten kasuak:
    - Norengatik / norengandik: (*herria(ren)gatik edozer egiteko prest nago /herriarengandik jaso dugun altxorra gorde beharra daukagu*).
    - Norenetik / norengandik: (*gurasoenetik nator, afaltzen gonbidatu naute eta / gurasoengandik ikasituen hizkuntza*).
    - Zehaztugabea / zehaztua: (*autobusez / lauretako autobusean; goizez / astelehen goizean*).
    - Norentzat / norentzako: (*umeentzat erosi ditut jostailu hauek / umeentzako jostailuak beharpenetan erosi ditut*).
- Determinatzaileak.
    - Mugatzaileak
      - Noiz -a, noiz bat?
      - Noiz -ok?
      - Erakusle indartuak: hauxe, hauexek, horixe...
      - Erakusle/izenordain indartuak: berau, berori, bera, berak (eurak, eurok)...
    - Zenbatzaileak
      - Zehaztuak
        - ✓ Kardinalak eta ordinalak
        - ✓ Zatikiak: Erdia, herena, laurdena.
        - ✓ Ehunekoak: (gasolina ehuneko bost (%5) igo da).
        - ✓ Banatzaileak: bana, bosna / bakoitza / bakoitzeko / seinaka.

- ✓ Zenbatzaile orokorrak: Dena, guztia, oro, oso, bete.
  - ✓ Zenbait esapide: (Bizpahiru, hogeit bat / hogeiren bat, baten bat, ehun inguru, gutxi gorabehera, milatik gora, hamarretik hogeira bitartean, milaka...).
  - Zenbatzaile zehaztugabeak: batzuk, zenbait, asko, gutxi, honenbeste, hainbat, ugari, dezente, nahiko(a), aski, pilo bat, makina bat, mordoak, apur bat, pixka bat...
- Adjektiboak:
- Izenondoa
    - Bakunak: eder, polit, itsusi...
    - Eratorriak: dirudun, paristar...
    - Elkartuak: ezkonberri...
    - Nola eta Nolako(ak) bereizi.
  - Izenlagunak
    - -en eta -ko atzizkien arteko nahasketak argitu: (*Elizaren isiltasuna/elizako isiltasuna; hormaren kolorea; kotxeko giltza*).
    - -ko atzizkia:
      - ✓ Izena + -ko: (*Anjelez fida zaitzke, berbako gizona da eta*).
      - ✓ Izena + izenondoa + -ko: (*indar handiko pertsona da*).
      - ✓ Zenbatzailea +izena+ -ko: (*lau hankako mahaia; Josu hitz gutxiko gizona da; urte osoko soldata gastatu du auto berrian; zenbateko interesa ematen dizute?*)
      - ✓ Adizlaguna+ -ko: (sekulako, egundoko, betiko)
      - ✓ Postposizioak: (bakearen aldeko manifestazioa).
      - ✓ Deklinabide kasuak: NOREKIKO (hurkoarekiko errespetua...), NORENGANAKO (zaharrenganako begirunea...), NORAINOKO (hemendik plazarainoko ilada...), NORENTZAKO, NORENGANDIKO, NORANZKO
  - Zenbait adjektibo berezi
    - BER adjektiboa: bera/berdina, (gizon bera/gizona bera)
    - Huts izenondoa (*kafe hutsa, alkohol hutsa, poltsa hutsa...*)
    - BESTE hitzaren erabilera: Bestea, beste bat...
    - Aditz-partizipioa adjektibo gisa: (*arrautza egosia; sagar errea...*)
    - Esamoldeak: -arena egin...
  - Aposizioa
- Adberbioa
- Adizlagunak
    - Kasu-marken bidez sortutakoak (*eskolara noa*)
    - Postposizioen bidez sortutakoak (*gelatik kanpo ikasi dute*)
  - Aditzondoak
    - Bakunak (*ondo, atzo...*)
    - Eratorriak : -ki, -ka, -ro, -to, -ik, -la (*poliki, harrika, astiro, ederto, bizirik, horrela*)
  - Erakusleetatik eratorritako adberbioak: hemen, hementxe, bertan, honelaxe, honen, horren, hain
  - Galdetzaileetatik eratorritako adberbioak: inor, norbait, nor edo nor, inor ez...
  - Postposizioak
    - Zer(ik): gabe, faltan, ezean
    - Zerez: gain(era), bestalde(an)
    - Nori: buruz, esker, begira
    - Nondik: kanpo, zehar



- Non: zehar, gora, behera, barrena
- Noren/Zer(en): gainean, aurrean...
- Postposizio antzeko aditz lokuzioak: zeri /nori begira, zer(en) / nor(ren) bila, zer eske, zeren/noren zain...
- Adberbio modalizatzaileak: ustez, iritiz...; jakina, noski...; badaezpada ere...; beharbada...; dirudinez, antza, hurrean...; ahal dela...; halabeharrez...; zorionez...
- Adierazkortasun-mailak
  - Maila-adberbioak: nahiko(a), oso, sano, itzel, izugarri, samarra, hutsa...
  - Errepikapena: zuri-zuria...
  - Konparazioa: egi, -ago, -en; ahalik eta ...-en, gero eta ...-ago, zenbat eta ...-ago, orduan eta...-ago; askoz ...-ago, are...-ago; hain, hainbeste...
  - Maila-atzizkiak: -xe, -txo, -tsu, -ska, -xko
  - Bustidura: goxo, kuttun, Maddalen...
- ❖ **Aditz sintagma**
  - Ezaugarriak
    - Aditz iragangaitzak eta iragankorrak (*Jon sartu da / Jonek sartu du autoa*)
    - Aditz jokatuak:
      - Partizipio / nominalizazio nahasketak argitu: -t(z)erik / -(r)ik (*ez daukat joaterik / ez daukat nora joanik*).
      - Nominalizazioaren erabileran sakontzea: -t(z)ea (*ez da lan makala gazteentzat pisua aurkitzea*); -t(z)ek (*zu berriz ikusteak poza ematen dit*); -t(z)erik (*ez dago zurekin asmatzerik*); -t(z)eari ekin, iritzi; -t(z)en utzi / -t(z)eari utzi; - t(z)etik (*zer aterako duzu gezurra esatetik?*); -t(z)earen; -t(z)earekin; -t(z)eaz; - t(z)eraino(ko); -t(z)ear; -t(z)eko zorian
      - Gerundioarekin sortzen diren nahasketak argitu: -t(z)en (*poteak hartzen ikusi nuen azkenengo*); -z (*behar denean galdetuz ez da erraza galtzea*); -ta / - (r)ik (*gezurra esanda/esanik ezin naiz trankil geratu*).
      - Gerundioaren bestelako erabilerak: ezean (*zer erantzun ezean geratu zen*), batean (*negar batean aurkitu nuen*), -ki (*gazteena izaki*), -(e)an (*jakinean dago*).
    - Aditz jokatuak:
      - Aditz sintetikoak:
        - ✓ **orain aldia, iragana:** nor (etzan -datza-), nor-nori (egon -dagokizu-, ibili -dabilkizu-, etorri -datorkizu-, joan -doakizu -, jario -dario-), nor-nork (esan -dio-, irudi -dirudite-, erabili -dabilte-, irau -dirau-, jardun -dihardu-), nor- nori-nork (iritzi -deritzot-, esan -diotsut-).
        - ✓ **Baldintza eta ondorioa:** nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork; (*balebil, baletoz, baneki, bazenerama, legoke, letorkidake...*)
      - Aditz laguntzailearen erabileran sakondu: nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork eta inpertsonalak; baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera.
    - Aditz alokutiboak (ulermen-mailan):
      - Zer dira?
      - Hi pertsonaren eta lehenengo eta hirugarren pertsonen erabilerak.
      - Nola sortzen dira? Beren ezaugarri morfologikoak.
      - Aditz forma erabilienak.
      - Zertarako erabiltzen dira?
      - Norekin? Erregistro mailak.
  - Aspektua
    - Aspektu-motak

- Aspektua adierazteko bestelako erak:
  - **burutua** izan-en erabilera (*Damu dut etorri izana*), Partizipio nominalizatua (*Film hori ikusia dut*)
  - **burutugabea ohi erabiliz** (*igandeetan joan ohi naiz*).
  - **etorkizuna**: -t(z)ekoa izan (*bihar joatekoa naiz*), -t(z)eko eduki (*ikusteko daukat*) -kizun erabiliz (*hori ikuskizun da*).
- Modalitatea
  - Beharritana: ezinbestekoa, nahitaezkoa da ...-t(z)ea.
  - Derrigortasuna: -arazi (*ezkonarazi gaituzte*), -t(z)era behartu (*hori egitera behartu naute*) eta eragin (*barre eragin dit*).
  - Ahal izatea: -tzeko gai izan, -tzea izan, egon, ukan, eduki eta ahalera (*galde diezaioket, ikus genezake, etor nintekeen*).
    - Baimena (*ba al dut sartzerik?, sar liteke?*).
    - Desioa edo itxaropena ahal partikula erabiliz (*sendatuko ahal da!, lortuko ahal duzu!*).
  - Asmoa: (-t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon/izan).
  - Probabilitatea (*Honezkero iritsiko zen Bartzelonako tren*).
  - Susmoa (*Berandu oheratuko zen eta horrexegatik izango du orain buruko mina*).
  - Partikula modalak: ote (ete), omen (ei), bide.
  - Eguraldia: euria da/euria ari du; haizea dabil; elurra dakar.
  - Moduzko partikulak aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: Partizipioak –TA/RIK (*amaituta dauzkagu lanak*)
- Aditz-lokuzioak
  - **izan**: ahal, ezin, nahi, behar, bizi, merezi, logura, komeni, uste, balio... izan.
  - **egin**: hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar... egin.
  - **hartu**: kontuan, hitza, parte, begitan hartu... hartu.
  - **eman**: kontu, hitza, denbora, amore, musu... eman.
  - **erabili**: asmoa, buruan, ahoan... erabili.
  - **partizipio nominalizatua**: hasia da, hasiak dira.
  - -T(Z)EKO egon (joateko dago).
- ❖ **Joskera**
  - Galdegaia eta ordena
  - Perpaus bakunak
    - Galderazko perpausa
      - “Al” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (berak egin al zuen?..)
    - Adierazpen perpausak
      - Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
        - ✓ Baiezkotasuna : (*badator autobusa; heldu dira gure opariak*).
        - ✓ Izena: (*aurreko ikasleak erantzun du ondo*).
        - ✓ Izenordaina: (*zeuk egingo duzu orain*).
        - ✓ Erakuslea: (*horixe da galduta zegoen liburua*).
        - ✓ Adberbia: (*hementxe zeuden poltsak*).
        - ✓ Aditza: (*lapurtu egin dizkigute poltsak*).
      - Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan
    - Harridura perpausak
      - Erakusleen bidez osatuak: (hau zorte txarra!; polit hori!; ganorabakoa halakoa!).
      - Galdetzaileen bidez:
        - ✓ ZE(R)/ZEIN: (ze eguraldi ederra dagoen gaur!, gozo zer dago!; okerra zer da, ba!)
        - ✓ NOLAKO/ZELAKO: (nolako imajinazioa daukazun!)
        - ✓ ZENBAT: (zenbat dituen!)
      - Baiezkoak: (bai ausarta dela umea!; zuk bai jan!; baietz etorri; bai horixe!; zu zara leloa! polita zer da, ba!)

- Ezezkoak: (Ezta pentsatu ere!; ezetz joan!; ez horixe!)
- Ordena: (ederra kontua!)
- Genitiboa: (gauaren iluna!)
  
- Aginte-perpauak (*zatoz hona!; geldi hor!; doala etxera!; ez esan hori!*)
- Eskerrak (*eskerrak etorri zarela/zarena/zaren!*)
- Ei-Omen; Ote partikulak: (*arduraduna joan zenean esan omen zion entzundakoa; Ba ote daki ezer?*)
- Ahal partikula: (*etorriko ahal da!*)
  
- Perpau elkartuak
  - Juntadura eta alborakuntza
    - Emendiozkoak: eta; ere (ere bai, ere ez, baita... ere, ezta... ere) bai..., bai...; ez..., ez...; ez ezik ere; bakarrik ez..., ...ere; -la..., -la...; hala..., nola...
    - Hautakariak: edo, ala, edota, (nahiz) ...nahiz; (zein) ...zein; edo... edo...; ala...ala...
    - Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino, ez baina
    - Banatzaileak: bai... bai (*bai ostiralean, bai larunbatean...*); ez... ez (*ez bihar, ez etzi...*); (alde) batetik... bestetik
  - Menderakuntza
    - Osagarriak eta zehar-galderak
      - ✓ -(e)la; -(e)na (*argi dago txarto dagoena*); -(e)nik (*ez dut esan egingo dudanik*), -t(z)eko (*Josuk atea ixteko esan du*).
      - ✓ -(e)n; -(e)netz (*ez dugu erabaki greba egingo dugunetz*)
      - ✓ -(e)n/-lako (*gaindituko dudan itxaropena daukat; galdu direlako zurrumurrua zabaldu da*)
      - ✓ Galdegaia + partizipioa (*ez daukat zer jan, nora joan...*)
      - ✓ Desioa, beharra eta abar adierazteko aditzez osatutako osagarriak:
        - Jokatu gabeko aditzekin (*ez dugu nahi zu molestaterik; nahi al duzu laguntzea? bihar lehentxeago etortzerik ba al duzu?*).
        - Jokaturakoekin (*lana gaur arratsalderako buka dezazuen behar dugu*).
    - Erlatibozkoak
      - ✓ Erreferentetun deklinatua: NOR, NORK, NORI, NOREN... (ariketak egiten dituen ikaslea, ikasleari...)
      - ✓ Erreferente gabea deklinatua.
      - ✓ Partizipioa: -tako, -riko, -ko, -~~o~~ (hona hemen artzainek eskatutako agiria; zeuk esaniko gauza guztiak egin ditugu)
      - ✓ -(e)neko (argazki horiek gazte nintzenekoak dira)
      - ✓ Zein/non... bait-/-(e)n
      - ✓ Galdegile eta erakuslez osatutako esamoldeak:
        - Jokatu gabeko aditzekin: (*zer etorri burura, huraxe esan*).
        - Jokaturakoekin: (*gerizpea non dagoen, hantxe geratuko gara*).
    - Kontzesiboak
      - ✓ Jokaturako aditzekin osatutako formen erabilera sendotu:
        - -(e)n arren (*egin dezakeen arren, ez du egin nahi*)
        - nahiz eta -(e)n (*nahiz eta bigarren mailan gauden, burua beti goian*)
        - ba... ere (*sinesgaitza bazirudien ere, iritsi ginen azkenean*)
        - -la(rik) ere (*nahi duen guztia erosten diotela ere, sekula ez da konformatzen*).
      - ✓ Jokatu gabeko aditzekin
        - -ta ere, -(r)ik ere (*milioi bat ordainduta ere, ez nuke egingo*)
        - -(e)z gero ere (*garaiz iritsiz gero ere, ez zenuen lortuko*)
        - -agatik ere (*zaharra izanagatik, taldeko jokalaririk onena da*)

- gabe / barik ere (*ikusi barik ere, banekien zeuek zinetena*).
- ✓ Esamolde kontzesiboak:
  - Gorabehera: (*Huts batzuk gorabehera, nahikoa ondo dago idazlana*)
  - ametsak amets: (*ametsak amets errealitatea da aurrean duguna*)
  - dioena dioela: (*dioena dioela, datorrena datorrela zuk ez egin kasurik*)
- Konparaziozkoak
  - ✓ Berdintasuna: bezala/bezalako/legez; -(e)n bezain, hain, -(e)n beste/adina; hainbeste; -(e)n besteko/adinako/bezainbesteko; -(e)n bezainbat/ bezainbeste. (horrek guk beste urte ditu /zuk besteko indarra dut nik / gure autoa zeurea bezain ona da).
    - Aditzak jokatu + n + konparazio morfema: (*hau dirudien baino errazagoa da; hau ez da dirudien bezain erraza*).
    - Ezin + partizipioa + konparazio morfema: (*ezin kontatu ahala/adina*).
    - Aditz modalak, uste, merezi... jokatu gabe + konparazio morfema: (*nahi adina, behar beste, merezi bezain ona*)
  - ✓ Desberdintasuna: baino...-ago; baino gehiago/gutxiago; ez bezala.
  - ✓ Bi egitura hauen arteko bereizketa:
    - zenbat eta [gehiago / gutxiago] ... [orduan / hainbat] eta [gehiago / gutxiago] (*zenbat eta liburu gehiago irakurri, orduan eta jakintsuagoa izango zara*)
    - gero eta gehiago /gutxiago (*zenbat eta jende gehiago gonbidatu, orduan eta opari gehiago jasoko ditugu*).
  - ✓ Hurrengo egituren erabilera:
    - ahalik eta, al bait ...-(e)n (*ahalik eta argien atera fotokopiak, mesedez*). (*Al bait arinen etorri*).
    - -(e)n bezalako (*zaren bezalako izanda, ez zara urruti iritsiko*).
    - -t(z)eko lain (*ozta-ozta jateko lain irabazten zuten*).
    - Zein baino zein ...-ago (*zein baino zein argiagoak dira*), bata baino bestea ...-ago (*azterketa hauek bata baino bestea txarragoak dira*)
- Baldintzazkoak
  - ✓ Jokatu aditzekin
    - Alegiazko eta iraganekoen arteko bereizketa: (*jakin banu egingo nuen / jakingo banu, egingo nuke*).
    - Iraganeko geroaldia eta alegiazko baldintzen arteko bereizketa: (*itxoingo zigutela esan zuten / eskatuko bagenie, itxoingo ligukete*).
    - Baldintza itxura, baina helburu esanahia duten esaldiak: (*irabaziko badugu, jo ta ke entrenatu behar*).
  - ✓ Jokatu gabeko aditzekin:
    - -t(z)ekotan (*gera zaitezke, baina isilik egotekotan; inora joatekotan, baserrira joan nahi nuke*).
    - ezean (*premiarik izan ezean, hobe da biharko uztea; agindu bezala egin ezean, ez dugu lana ordainduko*).
    - ezik (*Oraingoan asmatu ezik, ez dut berriro jokatu; ikusi ezik, ezin liteke sinetsi*).
    - -t(z)era (*hori jakitera, ez nizun ezer esango*).
- Kausazkoak
  - ✓ Jokatu aditzekin
    - -(e)la-eta (*buruko mina zuela-eta, etxera laguntzeko eskatu zidan*).
    - -(e)la kausa, zio, bide, medio: (*edana zela kausa, bikotea hautsi egin zen*).
    - zeren ... bait/--(e)n.: (*ez dizut esan zeren uste bainuen jakinaren ganean zinela*).
  - ✓ Jokatu gabeko aditzekin:
    - -t(z)eagatik, -t(z)earren. (*zergatik zigortu zaitu? Hitz egiteagatik/egitearren*).

- Helburuzkoak
  - ✓ Jokatutako aditzekin
    - Subjuntibozkoak: (*erosago egon zaitezten ekarri dizut burukoa; dirua eman nion liburua eros zezan*).
  - ✓ Jokatu gabeko aditzekin:
    - -t(z)en/ -t(z)era (*zertan zatozte/zertara zatozte?*) (*zertan zaude hemen?*)
    - -t(z)eko (*zertarako da hori? autoa garbitzeko da hori*).
    - -t(z)ekotan/-t(z)eko asmotan (*beste bat erostekotan gabiltza, hau oso zahar dago eta*).
    - -t(z)ekotzat (*etortzekotzat gelditu ziren*).
    - -t(z)eagatik/-t(z)earren (*zeurekin egotearren etorri naiz*)
- Denborazkoak
  - ✓ Berehalakotasuna
    - Bezain laster (*azkar, agudo, arin, fite, sarri, pronto, zoriz*) (*etxetik irten bezain laster ikusi zuen istripua*).
    - Eta berehala (*atoan, behingoan, bat-batean*)
    - -neko (*zelaian agertu zeneko, txistuka hasi ziren ikusleak*).
    - Orduko (*ilundu orduko etxean egon behar duzu*).
  - ✓ Gerokotasuna
    - Eta gero, ondoren, ostean, -takoan
    - -nez gero (*denborazko eta kausazkoen arteko anbiguotasunak*) (*karrera bukatu zuenez gero, ez zuen libururik hartu /bukatu eta gero etxe ondotik pasako zarenez gero, egizu sartu-irten bat*).
    - Partizipioa + orduko /-(e)n orduko (*nota jakin orduko saltoka hasi zen*)
  - ✓ Aldiberekotasuna
    - -nean,
    - Partizipioa+bitartean/-(e)n bitartean, -(e)n artean (*hemen zauden artean egizu lan hori*).
    - -la/-larik (*kaletik zetorrela, lapurra ikusi zuen*).
    - -t(z)ean,-keran (*sartukeran/sartzean karneta erakutsi dugu*).
    - Orduan/-(e)n orduan (*eskolara sartu orduan jakak kakoetan eskegi dituzte*)
    - -t(z)earekin/-t(z)ez /-az batera (*txakurra zaunka hasteaz batera korrika hasi ziren gureganantz*) (*ikusiaz batera ezagutu dut nor den hori*).
  - ✓ Iraupena
    - Arte/-(e)n arte/artean (*ariketak amaitzen dituzun arte, hemen egongo zara*).
    - Harik eta... arte (*harik eta sendatu arte, geldi egon beharko duzu*)
    - -netik/-nez geroztik (*Madrilera joan zenez geroztik, ez dut berriro ikusi*).
  - ✓ Maiztasuna
    - -(e)n bakoitzean, -(e)netan, -(e)n guztietan, -(e)n gehienetan, -(e)n (*hori esaten duzun bakoitzean, haserretu egiten da*).
- Moduzkoak
  - ✓ Jokatutako aditzekin:
    - -(e)n, eran, legez, antzera, gisan (*neuk ere zeuk egin duzun antzera egin dut*).
    - -(e)nez (*ikus daitekeenez, oso erraza da*).
    - -(e)la(rik) (*zer egin ez dakidala nago; zigarroa ahoan zuela hasi zitzaigun hizketan*).
    - -(e)naren arabera (*esan dutenaren arabera, aldaketak aurreikusten dira*).
    - -(e)n neurrian; -(e)n heinean (*egiten duzuen heinean ordainduko zaizue*).
  - ✓ Jokatu gabeko aditzekin:
    - Aditzaren elipsia eginda (*eskopeta eskuetan [zuela] sartu zen banketxean*).
    - Partizipioa + bezala, moduan, legez, antzera, arabera (*ikertzaileak esan legez*)

- *gertatu zen gertatutakoa)*
- *-(r)iko, -tako, -(e)ko moduan, gisan (azaldutako moduan egin dute).*
- ✓ Gerundioa
  - *-t(z)en: (umeak ikasten utzi ditut)*
  - *-z: (irakurriz ikasten da)*
  - *Ezinda, ezinik: (hau konpondu ezinik nabil)*
  - *-ta/-rik: (hori esanda, jesarri egin zen)*
- ✓ Bestelakoak
  - *Ahalean: (bota ahalean da euria).*
  - *Eginean: (gauzak eginean (eginez) ikasten dira)*
  - *Egonean: (egonean eman dut goiz osoa).*
  - *Joanean: (joanean-joanean tontorreraino heldu ginen).*
  - *Nahian, guran: (gogoratu nahian nabil)*
  - *Hutsean: (mahuka hutsean etorri zitzaigun)*
  - *-ka: (gau guztia eman dut eztulka).*
  - *- eta -: (gau guztia eman dut eztul eta eztul)*
- Ondoriozkoak
  - ✓ *Lokailu gabeak: ... hain da.. (haizeak infernukoa zirudien, hain zen beroa)*
  - ✓ *Lokailudunak: hain/hainbeste...ezen/non...bait/-(-e)n (hain zen altua, non teilaturaino heltzen baitzen).*

## EDUKI DISKURTSIBOAK

- Testu mailako lotura:
  - Juntagailuak eta lokailuak
    - *Emendiozkoak: eta, ere, gainera, bestalde, halaber, orobat, behintzat, bederen, behinik behin, ez ezik, ez eze, ez bakarrik...*
    - *Hautakariak: edo, edota, ala, zein, nahi(z), bestela, osterantzean, gainontzean, ezpabere...*
    - *Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino, baizen, ezpada, ordea, berriz, aldiz, ostera, aitzitik, bizkitartean, bien bitartean, bitartean, alta, alabaina, dena den, dena dela, hala ere, hala eta guztiz ere, haatik, hargatik, horratik, barren...*
    - *Ondoriozkoak. Beraz, bada, hortaz, hortaz bada, orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez, halatan, hala...*
    - *Kausazkoak: alabaina, bada, izan ere...*
  - Antolatzaileak
    - *Egituratzailak*
      - ✓ *Hasiera: hasteko, lehenengo eta behin, honen bitartez ...*
      - ✓ *Jarraipena: horren ostean, horrekin batera, bestalde...*
      - ✓ *Amaiera: amaitzeko, horrenbestez, besterik gabe...*
      - ✓ *Ordena: alde batetik... beste alde batetik..., batzuetan... beste batzuetan..., geroago ikusiko dugunez...*
    - *Hierarkikoak*
      - ✓ *Indartzea: batez ere, bereziki, zehatzago esanda...*
      - ✓ *Orobatasuna: beste batzuen artean, horren antzera, batez beste...*
      - ✓ *Kontrastea: nolnahi ere, iritziak iritzi, uste genuenaren kontra...*
    - *Erreferentzialak*
      - ✓ *Denbora: lehengo egunean, halako batean, hemendik aurrera...*
      - ✓ *Lekua: aurreko/hurrengo..., horren aurretik/atzetik...*
      - ✓ *Anaforikoak: testuan zehar azaldu denez, aurreko adibidean ikus daitekeenez, arestian aipatu dudanez...*
      - ✓ *Kataforikoak: honako hau, hona hemen, hurrengo hauek, beherago azalduko dudanez...*

- Modalizatzaileak
  - ✓ Iritzia: neure iritziz, nire ustez, iritziak iritzi, gehien iritzi...
  - ✓ Ziurtasuna: zalantzarik gabe, argi utzi nahi nuke, inondik inora ere, jakina...
  - ✓ Ziurtasunik eza: batek (ba)daki, beharbada, antza, ahal den neurrian...
  - ✓ Beharrezana: nahi eta nahi ez, ezinbestean, derrigorrean...
  - ✓ Balorazioa: ez legoke txarto, nahiago nuke, eskerrak...-la,-na, -n, zorionez...
- Iruzkina egitekoak
  - ✓ Aipamenak: *askoren ustez, antza denez, komunikabideetan diotenez...*
  - ✓ Ideia berriak txertatzeko: *kontuan hartzeko beste kontu bat, beste puntu garrantzitsu bat, ezin daiteke ahaztu...*
  - ✓ Ideiak zehazteko: *besteak beste, zehatz esateko, bereziki...*
- Argudiozkoak
  - ✓ Arrazoiak gehitzeko
  - ✓ Ideiak kontrajartzeko: *pentsa litekeenaren kontra, edozelan ere, edozein modutan ere...*
  - ✓ Ondorioak ateratzeko: *datu horietan oinarrituz, aurreko guztia kontuan hartuta, hitz gutxitan esateko, azken batean...*

## GAITASUN ETA EDUKI LEXIKO-SEMANTIKOAK

- Hitz-sortzaileak
  - Elkarketa
    - Izena + izena: (*seme-alabak, aitona-amonak, mus-txapelketa*)
    - Izena + adjektiboa: (*eskuluze, ipurterre...*)
    - aldi, toki, alde, leku, gabe, zain hitzak erabilia
    - izen eratorria + izena/ izena+izen eratorria (*hurbiltze-saio, odol emaila...*)
    - aditz-erroa + izena (*idazlan...*)
    - aditz-erroa + adjektiboa (*ezkonberri...*)
    - aditza + adjektiboa (*hasi berri...*)
    - partizipioa + partizipioa (*joan-etorri...*)
    - izena + aditza (*denborapasa...*)
    - adjektiboa+aditza (*berridatzi...*)
    - adjektiboa + adjektiboa (*luze-labur; hotz-bero...*)
  - Onomatopeiak (*plisti-plasta, kili-kolo...*)
  - Eratorpena
    - Atzizkiak
      - ✓ adjektiboa + adjektiboa (*luze-labur; hotz-bero...*)
      - ✓ -aldi, -ari, -aro, -bako, -bera, -di, -dun, -era, -erraz, -ezin, -gai, -gailu, -gaitz, -garren, -garri, -gile, -gin/-kin, -gintza, -go, -gura, -ka, -kada, -(k)ari, -keria, -keta, -ki, -kizun, -kunde, -kuntza, -le, -men/-pen, -ro, -tar, -tasun, -te, -(t)eria, -tegi, -ti, -txo, -tza, -tzaile, -une...
    - Aurrizkiak: *aurre-, kontra- ez- ber-/bir-, sasi-...*
- Lantzen diren egoeretako ohiko lexikoa: sinonimoak eta antonimoak.

## GAITASUN ETA EDUKI FONETIKO-FONOLOGIKOAK

- Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- Prozesu fonologikoak:
  - Palatalizazioa (*ixilik, fiña...*)
  - Bokalkontsonante-epentesia (*hiruretan...*)



- Asimilazioak eta elipsiak (*eztator, enaiz...*)
- Hiatoak (Derio, Otxandio...)
- Aldaketa fonetikoak (Bustidura...)
- Intonazioa eta azentua

## GAITASUN ETA EDUKI ORTOTIPOGRAFIKOAK

- Ortografia
  - -r-ren aurrean bokala (*arropa, errege, arrazoi...*)
  - -nb- eta -np- grafiak
  - Orduak nola idatzi
  - Maileguen egokitzapena (*funtzionario, erresistentzia...*)
  - Bustidura: -dd-, -ll-, -tt-
  - h grafia (nahiz)
  - Atzerriko ohiko izenen idazkera (*Pirinioak, Madril...*)
  - Zenbakien eta daten idazkera
  - Ortografiatzko zalantzak (*joanez gero/hamaikak ezker*)
  - Siglarik erabilienak (*BEZ, AEB, EHUko ikasleak...*)
- Puntuazioa.
  - Puntua(.).
    - ✓ Esaldi bukaeran
    - ✓ Laburduretan (*adb. , etab.*)
    - ✓ Zenbaki ordinaletan
    - ✓ Zenbakiak zifratan idaztean milakoak puntuz bereizten dira, datak, telefono edo posta-kodea izan ezik.
  - Bi puntu (:)
    - ✓ Norbaiten hitzak bere horretan testura ekartzen direnean
    - ✓ Adibideak edo zerrendetan
    - ✓ Ondorengoa aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko (*horrela jartzen denean, hauxe egin behar duzu: pikutara bidali*)
    - ✓ Orduetan
    - ✓ Gutunetan, hasierako agurraren atzean.
  - Eten-puntuak (...)
    - ✓ Enumerazioa edo esan nahi dena bukatu barik dagoela adierazteko.
    - ✓ Aipuetan, osorik ematen ez direnean. Isildu nahi duguna tartean geratzen bada, parentesi artean jarriko dira eten puntuak. (*honela esan zuen: "Legedia aztertu dugu eta (...) Beraz, legearen arabera..."*)
    - ✓ Zalantza, beldurra, lotsa, misterioa eta abar adierazteko, aipuak airean utzi nahi direnean. (*Bat-batean leherketa bat entzun zen eta... Begiak ireki zituenean...*)
  - Koma (,)
    - ✓ Enumerazioetan. Esaldian funtzio bera duten segidako elementuen artean eta tarteko lokailurik ez dagoenean. (*Miren, Itziar eta Ane ikusi nituen bart*)
    - ✓ Menpeko esaldiak nagusiaren aurretik doazenean eta galdegai ez direnean. (*Bera heldu zenean, gu afaltzen ari ginen.*)
    - ✓ Aposizioan. (*Joxeren lagunak, iaz ezagutu genituenak, bihar etorriko dira.*)
    - ✓ Bokatioan. (*Aizu, Peru, buka ezazu arinetan.*)
    - ✓ Aditza isilpean dagoenean. (*Eguzkia nora, zapiak hara.*)
    - ✓ Bai edo ez bat baino gehiago segidan joanez gero (bai hau, bai hori, bai bestea...)
    - ✓ *Baina* juntagailuaren aurrean.
    - ✓ Ondoko terminoek ere koma behar dute: hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, adibidez, dena den, beraz...



- Puntu eta koma (;)
  - ✓ Perpaus lokabeetan (*Ez zidan ezer esan; oso lanpetuta zegoen*)
  - ✓ Ideia beraren bi alderdi adierazten dituzten bi esaldiren artean. (*Mondragon Unibertsitatean emakumezkoak 2.191 dira; gizonezkoak, berriz, 3.134*).
  - ✓ Zenbait lokailuren aurrean: beraz, izan ere, aitzitik, horregatik...
  - ✓ Perpausaren kideko zatiak elkarren segidan joanez gero, puntu eta komaz bereiziko dira, euren barruan koma erabili bada. (*Batzuek amore eman dute; beste batzuek, jatorrenak nire ustez, borrokan dira*).
- Komatxoak (“)
  - ✓ Norbaitek esana edo idatzia hitzez hitz jaso nahi denean.
  - ✓ Lan artistikoen izenburuak, liburu eta artikuluenak,
  - ✓ Izengoitiak
  - ✓ Beste hizkuntzetatik hartutako terminoak (*Edari “light” horiek ez ditut gustuko*).
  - ✓ Herri-hizkeratik hartutako hitzak (*“Txokolatea” pasatzen harrapatu zuten*).
  - ✓ Ironiazko zentzuan erabiltzen diren hitzak.
- Marratxo (-)
  - ✓ Elkarrizketetan
  - ✓ Izen arrotzei atzikia eranstean zaienean (*New York-en*)
  - ✓ Hitz elkartu batzuetan.

## EBALUAZIOA

### Entzunaren ulermena

- Erregistro aldeak eta ñabardurak erraz nabaritzen ditu, dauzkan gaitasun soziokultural eta soziolinguistiko ugariari esker.
- Zentzu orokorra, ideia nagusiak, zehaztasunak eta alderdi esanguratsuak ulertzen ditu, baita hitzunen iritzi eta jarrerak, hala esplizituak nola implizituak ere.
- Adierazpen idiomatiko eta lagunarteko ugari ezagutzen ditu zenbait testuingurutan, eta, esanahiaren konnotazioei eta ñabardurei antzematen die.
- Funtzio komunikatibo eta hizketako egintza ugari ezagutzen ditu askotariko erregistroetan.
- Soinu, azentu, erritmo eta doinuera eredu asko bereizten ditu.

### Ahozko ekoizpena bakarrik eta lankidetzan

- Hizkuntza modu malguan eta eraginkorrean erabiltzen du xede sozialetarako, ekoizpena egoerari, hartzaileari eta haiei dagokien formaltasun mailari egokitzuz.
- Diskurtsoa egoera bakoitzari eraginkortasunez egokitzen uzten dioten estrategia diskurtsibo eta konpentsatzaileak menderatzen ditu.
- Argudio zehatzak garatzen ditu modu sistematiko eta ondo egituratuan, ideiak era logikoan uztartuz, argudio nagusiak nabarmenduz eta alderdi espezifikoak garatuz konklusio egokietara iristeko.
- Ideiak argi eta zehatz adierazten eta argudiatzen ditu. Bere solaskideen argudio eta kritikei aurka egin diezaieke, adeitasunez eta era egoki eta sinesgarrian; bere erantzunari modu erraz eta naturalean eutsiz hainbat erregistrotan.
- Diskurtsoa argi egituratzen du, antolaketa irizpide egokiak zein ahozko hizkuntzari dagozkion lokailu eta kohesio mekanismoak erabiliz.
- Zuzentasun gramatikal handia du bere jardunak, eta egiten dituen hutsegiteak urriak eta ia nabarigaitzak dira.

- Errepertorio lexiko zabala menderatzen du, baita adierazpen idiomatiko eta lagunartekoak ere. Horri esker itzulunguruak erabil ditzake estrategia konpentsatzaile gisa. Hutsegite txikiak egin ditzake, baina ez hiztegi akats garrantzitsurik, eta ez du saiheste estrategiarik erabiltzen.
- Xede-hizkuntzari dagozkion aldaera estandarren batetik hurbil ahoskatzen du, eta doinuera aldatzen du esanahi ñabardurak adierazteko.
- Bere diskurtsoa jario eta naturaltasun handikoa da, ia ahaleginik gabekoa. Kontzeptualki zaila den gairen batek baino ezin dezake jarioa oztopatu.
- Behar bezalako esaldiak erabiltzen ditu bere iruzkinak egokiro sartzeko, hitza hartzeko edo hitzaren erabilerari eusteko. Esku-hartzeko unean badaki solaskideak dioena baliatzen.
- Bere esku-hartzeak solaskideen esku-hartzeetara moldatzen eta egokitzen ditu komunikazio errazagoa lortzeko. Galderak egiten dizkio ulertu duela baieztatzeko eta argi geratu ez diren alderdiak argitzea lortzen du.

### **Ebaluaziorako honako irizpide hauek erabiliko dira:**

#### **Egokitasuna: ataza betetzea eta koherentzia**

- Ekoizpena emandako denborari egokitzen zaio.
- Erregistroa egoerari eta jasotzaileei egokitzen zaizkie.
- Informazioa esanguratsua da eta ez dago argudiatze-jauzirik.
- Gaiak modu koherentean antolatzen dira, bai gai nagusiari, bai azpigai edo bestelako alderdi partikularrei dagokienez.
- Diskurtsoa modu naturalean gauzatzen da eta proposatutako xedeari egokituta.
- Diskurtsoa argia da eta konplexua izan daiteke, gaien arabera.
- Logikari, denborari, zergatiari, eta abarri erreparatuta, barne-koherentzia du.
- Ikuspegi soziolinguistikotik egokia da, jasotzaileei eta inguruari egokitzen zaien hizkuntza aldaera baten barruan.

#### **Hitz-jarioratasuna eta kohesioa**

- Jario eta naturaltasun handiz komunikatzen du.
- Erritmo erregularrean, eten luzerik eta duda-mudarik gabeko diskurtsoak ekoizten ditu.
- Esaldi eta diskurtsoko lokailuen bidez lotzen ditu esaldiak, eten egokiak eginez.
- Erreferentzialtasun mekanismoak (izenordainak, anafarak eta abar) modu egokian erabiltzen ditu nahasmendurik edo anbiguotasunik eragin gabe.
- Hainbat funtzio modu eraginkorrean eta malgutasunez betetzen uzten dioten era askotako lokailu eta perpaus egiturak erabiltzen ditu
- Ideien arteko loturak argi markatzeko lotura-hitz mota ugari erabiltzen ditu.
- Hitz-txandak eraginkortasunez erabiltzen ditu, esaldi egokiak aukeratuz diskurtsoaren funtzioaren arabera, hitza hartzeko eta mantentzeko eta bere esku-hartzeak solaskidearenekin uztartzeko.

#### **Aberastasun diskurtsiboa: hiztegia**

- Hiztegi aberatsa erabiltzen du eta erabilera idiomatiko egokia egiten du.
- Hiztegia zehatza erabiltzen du, anbiguotasunik edo zehaztugabetasunik eragin gabe.
- Ñabardurak egiteko gaitasuna erakusten du, behar bezalako hiztegia, adjektiboak, adberbioak, zein itzulunguruetarako, konparazioetarako edo adibideetarako baliabideak erabiliz.
- Lexikoa eskatutako atazara egokitzen du, solaskidea, testuinguru soziolinguistikoa eta testuak bete beharreko funtzioa aintzat hartuta.

#### **Zuzentasuna: morfosintaxia, ahoskera eta doinuera**

- Oso hutsegite morfologiko eta sintaktiko gutxi dituen diskurtsoa ekoizten du.

- Hutsegiteak noizbehinkakoak dira eta ez diete hizkuntzaren ohiko elementu egiturazkoei edo gramatikalei eragiten.
- Ahoskatzean, azentu arrotza antzematen zaio, baina ez da deigarria.
- Noizbehinka hutsegite bat edo beste egin ditzake, baina ez dira sistematikoak; ohikoak ez diren elementu lexikoei eta erabilera bereziagoei (hitz edo esapide ezohikoak) dagozkienak baizik.
- Intonazioa zuzena da hainbat funtziori (galderak, harridura, eta abar), enfasiari eta testuinguru komunikatiboaren formaltasunari dagokienez.
- Esaldiaren barruan doinuera aldatzen du eta enfasia dagokion tokian jartzen du ñabardurak zehaztasunez adierazteko.

## Irakurriaren ulermena

- Hizkuntza hori erabiltzen den kulturetan, erkidegoetan eta taldeetan idatzizko komunikazioak duen benetako esanahiari eta ezaugarri idiosinkratikoei erraz antzematen die.
- Egilearen jarrera, aurrejoera eta asmoak ulertzen eta inferitzen ditu eta konklusio egokiak ateratzen ditu.
- Erraz identifikatzen ditu mota askotako gai profesional edo akademikoei buruzko testuen edukia eta garrantzia.
- Testu luze eta konplexuetan erraz aurkitzen ditu zehaztasun esanguratsuak.
- Erraz igartzen du zein testu-genero eta zein testu-mota den hainbat erregistroren artean (lagunartekoa, informala, neutroa, formala), testuinguruaren arabera.
- Egitura diskurtsibo konplexua duten edo erabat egituratuta ez dauden testuetan informazioa aurkitzen du edo argudioen hariari jarraitzen dio.
- Ondo menderatzen ditu idatzizko oso lexiko zabala, adierazpen idiomatikoak eta lagunartekoak eta esanahiaren konnotazioak eta ñabardurak bereizten ditu, nahiz eta batzuetan hiztegi orokorrean zein espezializatuan begiratu behar duen.
- Idatzizko hizkuntzaren berezko hainbat egitura sintaktikoren esanahiak eta haiei dagozkien funtzioak ulertzen ditu testuinguruaren eta testu-genero eta testu-motaren arabera.
- Arau ortotipografikoei dagozkien komunikazio asmoak ezagutzen ditu.

## Idatzizko ekoizpena bakarrik eta lankidetzan

- Mezua eta hura adierazteko baliabideak egoerari, hartzaileari, gaiari eta testu motari egokitzen dizkio.
- Testu idatzia xede-hizkuntzaren kulturetan eta erkidegoetan ezarritako arauetara egokitzen du.
- Testu-antolatzaile eta kohesio era konplexuak erabiltzen ditu, bere arrazoibideak adibidez janzten ditu, eta, dituen asmo komunikatiboen arabera zehazten ditu bere baieztapenak eta iritziak.
- Mota askotako egitura sintaktikoak eta lexiko zabala erabiltzen ditu.
- Egitura gramatikalei eta lexikoari dagokienez hutsegite txikiak baino ez ditu egiten.

### Ebaluaziorako honako irizpide hauek erabiliko dira:

#### Egokitasuna: ataza betetzea eta koherentzia

- Atazan eskatutakoa betetzen du (garatu beharreko puntuak, behar bezalako luzera, hitz kopurua).
- Edukia komunikazio egoerari (erregistroa, hartzailea, asmoa, testu mota) oso ondo atxikitzen zaio.
- Ideiak oso era koherentean adierazita daude, ez dago kontraesanik, gaiari egoki datozkio eta oso ondo garatuak daude.
- Testuak aurreratze jarraitua du.

**Kohesioa eta testuaren egitura**

- Esaldiak eta paragrafoak lokailu eta puntuazio egokiaren bidez lotzen ditu.
- Erreferentzialtasun mekanismoak zehaztasun handiz erabiltzen ditu.

**Aberastasuna, zehaztasuna: lexikoa eta morfosintaktikoa**

- Lexiko aberatsa du eta zehaztasun handia erakusten du.
- Egitura morfosintaktiko ugari eta zehaztasunez erabiltzen ditu.

**Zuzentasuna: morfosintaktikoa, ortografikoa**

- Oso hutsegite morfologiko, sintaktiko eta ortografiko gutxi dituzten testu idatziak ekoizten ditu.
- Testu idatzietan egiten dituen hutsegiteak ez dira sistematikoak eta ez die eragiten ohiko elementu eta egitura gramatikalei, baizik eta ez hain ohikoei edota erabilera berezikoei soilik.

**Bitartekotza**

- Eraginkortasunez ateratzen ditu ondorio egokiak, eta horren arabera jokatzeko du hainbat erregistro eta estilotan, behar bezalako malgutasunez, egoeraren arabera, eta hizkuntza hitz egiten den kulturen berariazko alderdi kulturalen, soziokulturalen eta soziolinguistikoen ezagutza zabala aplikatuta.
- Aise aplikatzen ditu estrategia egokiak prozesatu behar dituen testuak asmoari edo erari eta komunikazioaren kanalarik egokitzeko.
- Testu koherentea eta kohesionatua ekoizten du jatorrizko beste testu batzuk abiapuntu dituela.
- Argi helarazten ditu jatorrizko testuen puntu nabarmenak eta esanguratsuenak, baita garrantzitsuak iruditzen zaizkion zehaztasunak ere, aintzat hartuta hartzaileen interesak eta beharrak.
- Partaideen arteko interakzioa malgutasunez kudeatzen du komunikazioa errazten saiatzeko; ulermena eta interesa erakutsiz; informazio zehatza edo ideia esanguratsuak erabiliz, aurretik esandakoa berriro esanez edo partaideei berriro esan dezaten eskatuz; gai berriei ekinez edo laburbilduz eztabaida antolatuz; eta arazo edo gatazkaren konponbiderantz bideratuz.